

Hondarrak

Koldo Sagasti

Espainiako Auzitegi Gorenak jakitera eman du Altsasuko gazteen aferaren gaineko ebazpena. Urtebete eta bederatzi urte eta erdi bitarteko kartzela zigorrak ezarri dizkie zorigaiztoko gau batean lan orduz kanpo zebiltzan guardia zibil batzuen bidean gurutzatu ziren zortzi gazteei. Ordu txikitan eta jende gehiena behar baino gehiago edanda zebilen festa-gau hartan Koxka tabernan sartu ziren beneméritoak ez ziren sartu futbolinean jokatzera, topatu zutenaren bila baizik. Baina, sanferminetan, taldeka, neska babesgabe bat bortxatu zutenak ez bezala,

Altsasuko guardia zibilak, lan orduetan ez izanagatik, guardia zibilak dira; eta haiei zuzendutako edozein mehatxu edo keinu txar, autoritatearen aurkako eraso da. Arazoa da Altsasu ez dela Carrizo de la Ribera. Iragan otsailaren 28an Leongo herri horretako tabernan sartu ziren guardia zibilei ez zien inork eragozpenik jarri bezero talde bati eta tabernariari ahoan bala batzuk sartu eta “Cara al sol” abestera behartu zituztenean. Areago, Leongo Zigor Epaitegiak zigorrik gabe utzi ditu, autoritatea izanik, haien testigantza biktimena baino sinegarriagoa delakoan.

Hautsak harrotu ditu Espainia aldean Francoren hondarrak hobitik aterako dituztelako iragarpenak. Baina susmotan nago harlauza jasotakoan horixe baino ez dutela aurkituko, hautsak. Izan, ere hondarrak ez daude bertan, hondarrak Auzitegi Gorenean daude, eta Leongo Zigor Epaitegian, eta Guardia Zibilean, eta zangomotzak lotuta-eta-ondo-lotuta utzi zuen estatu egitura baten zirrikitu guztietan. Espainiako Estatuaren aparatuek egunero erakusten digute trantsizioa zeritzoten ura transakzio bat baino ez zela izan, eta sasidemokrazia hau, diktaduraren hondarrak. •

Eztarrian trabatuta

Amagoia Mujika
Telleria

Eztarrian trabatuta geratu zaizkie hitzak. Aurretik ez genituen horrela sumatu. Beti gogor, beti tinko, beti aurrera begira. Altsasuko gurasoei hitzak eztarrian trabatuta geratu zaizkie aste honetan eta gu mutu geratu gara. Zer demontre esan behar diegu?

Seme-alaba baten sufrimendua sufritzea da ezagutu dudak sufrikariorik latzena. Hain txiki eta inuzente mundu aldrebes honetara botatzen ditugunean, beti egoten gara tente, adi, noiz eroriko, nork botako. Kostata, ikas dezakegu gure gorputza haien gorputzetik askatzen, bi pertsona desberdin garelako

ulertzen. Mikel Laboak kantatzen zenez, «ama eten dezagun lehen gorputzarena bezela, orain gogoaren zilborhestea». Eta nola seme-alaba autonomoak, osasuntsuak eta askeak nahi ditugun, eta nola hitzaldietan eta aldizkarietan besterik ez diguten aholkatzen, soka pixka bat askatzen dugu, minez bada ere.

Ikasteko erori egin behar dutela esaten digute, tresnak behar dituztela bizitza petral honetan aurrera egin ahal izateko, esne-mamitan izatea beren kalterako dela... Gutxiena espero duzuna gau batean parrandan atera eta datozen zortzi-hamar urtean kartzelan

ikusi beharko dituzula da. Ametsik txarrarena, zitalena, ilunena, errealitate eginda. Inuzentea litzateke errua zorte txarrari botatzea. Euskal Herrian injustiziak aurretik ondo landutako lurrean ereiten dira eta kasu honetan ere horrelaxe izan da.

Altsasuko ama bati entzun diot esaten semeak erakusten diela bidea, kartzelatik hark egiten diela argia, lapurtzen dioten egun bakoitza beretzat izango dela, baliatu egingo duela. Askotan gurasoak hitzik gabe geratzen garen, hitzak eztarrian trabatzen zaizkigunean, seme-alabek eskutik eutsi eta tira egiten digute, aurrera. •